

### PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ZUNDAKETEN ETA ERAGIKETA OSAGARRIEN EGONKORTZEA	Iraupena	50
		Baldintzatua	
Kodea	UF0757		
Lanbide-arloa	ERAUZKETA-INDUSTRIAK		
Lanbide-eremua	Meatzaritza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Zundaketak	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Zundaketak egitea	Iraupena	260
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Lan- eta ingurumen-arriskuen prebentzioa zundaketen zulaketan (Zeharkakoa).	Iraupena	50
	Zundaketen zulaketa		80
	Zundaketa-ekipamenduen mantentze-lanak egitea eta zundaketa amaitzea		80

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0415\_2 ZUNDAKETAK EGITEA gaitasun-ataleko LB1 lanbide-burutzapenarekin, zundaketen egonkortzeari eta zundaketa barruan matxuratutako ekipamenduak berreskuratzeari dagokionez.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Zundaketa egonkortzeko jarraitu beharreko prozesua aplikatzea lur plastikoen handitzeak, zundaketako hormen zatien erorketak eta akuiferoen kutsadura saihestuz.

E1.1 Estaldura-hodia noiz sartu behar den erabakitzea.

E1.2 Estaldura-hodiaren diametro egokiena eta hodia sartzeko metodoa esleitzea egoera bakoitzean.

E1.3 Hodia sartzeko prozesua idaztea.

E1.4 Sakonera bakoitzerako egokiena den estaldura-hodi mota (itsua, artekaketa eta abar) behar bezala jartzea ur-zundaketetan.

E1.5 Zundaketaren zementazioa zer zirkunstantzian erabakitzen den adieraztea.

E1.6 Zementuaren ezaugarriak aztertzea zundaketan moztutako jariakinen propietateen ezaugarrien eta osieran zeharkatutako lurren presioen arabera.

E1.7 Adieraztea nola kontrola eta alda daitezkeen morteroen eta hormigoiaren propietate erreologikoak eta fisiko-kimikoak, zementuen, agregatuaren eta gehigarrien osakerak eta proportzioak aldatuz.

E1.8 Zundaketan sartu beharreko zementu-bolumena eta behar den guneraino iristeko behar diren tresnak eta fraguatzeko-denbora erabakitzea.

A2: Arrantza-erremintak behar bezala erabiltzea zulaketa-erremintak edo hagaxkak hausten edo galtzen badira zundaketan.

E1.2.1 Piezak zundaketa barrutik berreskuratzeko behar diren arrantza-erremintak eta -lanabesak erabiltzea, eta beharrezkoa izanez gero, diseinatzea eta egitea.

E1.2.2 Zundaketa barruan galdutako elementuak zer sakontasunetara eta non dauden jakiteko tresnak erabiltzea, eta, behar izanez gero, diseinatzea eta egitea.

A3: Zundaketaren desbideratzea kontrolatzeko teknikak aplikatzea, ezarritako prozedurei jarraikiz.

E1.3.1 Zundaketaren desbideratzeak izateko arriskua duten lurra ezagutzea eta desbideratzerik ez sortzeko beharrezkoak diren baliabideak jartzea.

E1.3.2 Behar bezala identifikatutako kasu praktikoko batean, zundaketa-ekipamendua erabili behar da; honako lan hauek egin behar dira:

- Zundaketaren desbideratzeak kontrolatzea, eta, hala badagokio, zuzentzea.
- Arrantza-lanabesak erabiltzea, zulaketa-prozesuan beharrezkoak direnean.
- Zundaketan tutuak jartzea eta zementatzea beharrezkoa denean edo proiektuak horrelakorik eskatzen duenean.
- Zundaketaren ahoa behar bezala egokitzea ondoren erabiltzeko zulaketa denbora batean uzten bada, eta arriskurik ez izateko.

##### Edukiak:

##### 1. Eragiketa-prozesuak eta -prozedurak zundaketan tutuak jartzeko.

- Estaldura-hodiak. Motak:
  - Dimentsio arautuak.

- Diametro-murrizketak.
  - Koroa zapatak.
  - Ur-putzuen iragazkiak. Motak:
    - Artekaketak. Motak.
    - Itsuak. Motak.
- 2. Eragiketa-prozesuak eta -prozedurak zundaketaren zementaziorako.**
- Babesa akuiferoen kutsadurarako.
  - Babesa lohien galera saihesteko.
  - Zulaketa erabilitako zementu-motak.
  - Obturadoreak.
- 3. Zundaketaren desbideratzea kontrolatzeko teknikak eta prozedurak.**
- Desbideratzeen neurketa inklinometroen bitartez.
  - Desbideratze-ziriak. Motak eta erabilera.
  - Desbideratze-zirien posizionamendua.
- 4. Arrantza-teknikak eta -erremintak zundaketak egiterakoan.**
- Arrantza-erreminta motak:
    - Arrantza-buloia.
    - Arrantza-arrak.
    - Ezkerreko hariko hodiak.
    - Arrantza-kanpaiak.
    - Kableak mozteko tresna.
  - Arrantza-teknikak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestakuntza-atal hau egiteko gainditua izan behar du UF0756 Zundaketen zulaketa

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Zundaketak